



**AGINDUA, ETXEBIZITZA ETA  
HIRI AGENDA  
SAILBURUARENA,  
ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA  
SAILAREN DIRULAGUNTZEN  
2025-2028KO PLAN  
ESTRATEGIKOA ALDATZEKO.**

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren bidez, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Dirulaguntzen 2025-2028ko Plan Estrategikoa onartu zen, dirulaguntzen arloko araudian jasotako aurreikuspenekin bat etorritz.

Agindu horren hirugarren ebazpenzatiaren arabera, plan hori aldian behin berrikusi ahal izango da, planaren aurreikuspenak inguruabar materialetara eta aurrekontu-inguruabarretara egokitzeko eta haren barruan dirulaguntza-neurri edo -jarduera berriak sartzeko.

Honako jarduera-ildo hau sartzea da planari egiten zaion aldaketa:

- ✓ Alokaplus programa (Aloka+), errentatzaileei eta jabeiei zuzendua, bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuetan dauden etxebizitzaren errentamendu-kontratuei dagokienez.

Kontuan hartuta administrazio-ekintzaren izaera dinamikoa dela eta plangintza-tresnak unean uneko premia eta lehenetasun publikoetara etengabe egokitu

**ORDEN, DEL CONSEJERO DE  
VIVIENDA Y AGENDA URBANA,  
DE MODIFICACIÓN DEL PLAN  
ESTRATÉGICO DE  
SUBVENCIONES DEL  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y AGENDA URBANA 2025-2028.**

Mediante Orden de 18 de junio de 2025, del consejero de Vivienda y Agenda Urbana, se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana 2025-2028, de conformidad con las previsiones contenidas en la normativa reguladora en materia de subvenciones.

El resuelto tercero de dicha Orden prevé que periódicamente se podrá revisar este Plan para adaptar las previsiones del mismo a las circunstancias materiales y presupuestarias presentes y para incluir nuevas medidas o actuaciones subvencionales en el mismo.

La modificación del Plan consiste en la inclusión de la siguiente línea de actuación:

- ✓ Programa Alokaplus (Aloka+) dirigido a las personas arrendadoras y propietarias en relación con contratos de arrendamiento de vivienda ubicadas en zonas de mercado residencial tensionado.

Dado el carácter dinámico de la acción administrativa y la necesidad de adecuar de forma permanente los instrumentos de planificación a las necesidades y





behar direla, hirugarren ebazpen-zatian ematen den aukera baliatuz, egokitzen jotzen da Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren dirulaguntza-politika osorik eta eguneratuta jaso dezan.

prioridades públicas concurrentes, y en ejercicio de la habilitación conferida en el Resuelto tercero de, se considera procedente la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones, a fin de que este refleje de manera íntegra y actualizada la política subvencional del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana.

Horrenbestez, hau

En su virtud,

### **EBAZTEN DUT:**

### **RESUELVO:**

**Lehenengoa.-** Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Dirulaguntzen 2025-2028ko Plan Estrategikoa onartzen duen agindua aldatzea, haren barruan dirulaguntza-programa edo -deialdi berri bat sartzeko (agindu hura Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuarena da, eta 2025eko ekainaren 18koa).

**Primero.-** Modificar la Orden de 18 de junio de 2025, del consejero de Vivienda y Agenda Urbana, por la que se aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana 2025-2028, para incluir un nuevo Programa o convocatoria subvencional.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen eranskina onartzea. Eranskin hori 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren II. eranskin bihurtuko da, eta dirulaguntza berria azalduko du.

**Segundo.-** Aprobar el anexo de la presente Resolución que pasará a ser el Anexo II de la Orden de 18 de junio de 2025, con la nueva subvención que se relaciona en el mismo.

**Hirugarrena.-** Agindu hau kasuan kasuko bitarteko ofizialen bidez argitara dadila agintzea, eta, betiere, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean dagokion eremuan.

**Tercero.-** Ordenar que se dé publicidad a esta Orden a través de los medios oficiales que procedan y, en todo caso, mediante su inserción en el espacio que corresponde al Departamento de Vivienda y Agenda Urbana en la web [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus).

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua  
Consejero de Vivienda y Agenda Urbana  
DENIS ITXASO GONZÁLEZ  
Elektronikoki sinatuta  
Fdo. Electrónicamente

**Ardatz estrategikoa: Etxebizitza eskuratzeko eta gazteen emantzipaziorako prestazioen eta laguntzen sistema.**

**Helburu estrategikoa:** Eremu tentsionatueta dauden titulartasun pribatuko etxebizitzak ohiko etxebizitzaren errentamendu-merkatuan sar edo egon daitezen laguntzea eta ustez kalteberatasun-egoera larriagoan dauden errentari mota jakin batzuk etxebizitza horietan sar daitezen laguntzea.

**Organoa:** Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

**Aurrekontu-programa:** Etxebizitza Programa (4312).

**Dirulaguntza-lerroa:** Dirulaguntza-lerroa. Alokaplus programa.

**Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.**

Helburua: bide ematea tentsio handiko eremuetan etxebizitzak etxebizitza-errentamenduaren merkatuan sar daitezen eta kalteberagoak diren pertsonak mota horretako etxebizitzetan sar daitezen.

Lortu nahi den ondorioa: errenta edo hornidurak ordaintzen ez direnean, diruz laguntzea, baldin eta errentamendu-kontratuak betetzen ez badira eta auzibidera jo behar bada.

Adierazleak/Magnitudeak:

- Laguntzen onuradun diren jabeen kopurua.
- Etxebizitza-errentamenduaren merkatuan sartu diren errentarien kopurua.

**Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:**

Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala (2022-2036).  
2025-2027ko Etxebizitza Plan Zuzentzailea.  
EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana.  
Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana (2020).  
Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia.

**Dirulaguntzen xede diren sektoreak:**

**Sailen aurrekontu-aurreikuspenak**

|                       | 2026    | 2027      | 2028      |  |
|-----------------------|---------|-----------|-----------|--|
| Aurrekontu-kapitulua: | 250.000 | 2.000.000 | 2.000.000 |  |

**Identifikatutako beste ekarpen batzuk:** Ez

**Dirulaguntzak emateko prozedura:** Segidako ematea.

**Eje Estratégico: Sistema de prestaciones y ayudas para el acceso a la vivienda y para la emancipación de las personas jóvenes.**

**Objetivo Estratégico:** Favorecer que las viviendas de titularidad privada ubicadas en zonas tensionadas se incorporen o mantengan en el mercado de arrendamiento de vivienda habitual y favorecer que determinados perfiles de personas arrendatarias en principio en mayor situación de vulnerabilidad accedan a estas viviendas.

**Órgano:** Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda

**Programa Presupuestario:** Programa de vivienda 4312

Línea de subvención. Programa Alokaplus.

**Objetivos, efectos perseguidos e indicadores (en el escenario temporal de vigencia del Plan)**

Objetivo: favorecer la incorporación de viviendas en zonas tensionadas al mercado del arrendamiento de vivienda y el acceso de perfiles más vulnerables a ese tipo de viviendas.

Efecto perseguido: subvencionar los impagos de rentas y/o suministros en el supuesto de que se incumplan los contratos de arrendamiento y deba acudir a la vía judicial.

Indicadores/Magnitudes:

- Nº de personas propietarias beneficiarias de las ayudas.
- Nº de personas arrendatarias que han podido acceder al mercado del arrendamiento de vivienda.

**Áreas de competencia afectadas/Planes sectoriales relacionados:**

Pacto Social por la vivienda 2022-2036.  
Plan director de Vivienda de 2025-2027.  
VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAE.  
IV Plan Joven del Gobierno Vasco 2020.  
Estrategia Vasca 2030 para favorecer la emancipación juvenil.

**Sector o sectores a los que se dirigen las ayudas:**

**Previsiones presupuestarias departamentales**

|  | Importes totales para conceder en cada anualidad |           |           |  |
|--|--------------------------------------------------|-----------|-----------|--|
|  | 2026                                             | 2027      | 2028      |  |
|  | 250.000                                          | 2.000.000 | 2.000.000 |  |

**Otras aportaciones identificadas:** NO

**Procedimiento de concesión:** Concesión sucesiva